Bestelako Xedapenak

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

2685

EBAZPENA, 2010eko martxoaren 22koa, Industria Administrazio eta Segurtasuneko zuzendariarena; honen bitartez, Afogasca profesional baimenduak prestatzeko aitortutako erakundeari baimena ematen zaio 1027/2007 Errege Dekretuan araututa dagoen eraikinetako instalazio termikoetako txartel profesionala baliozkotzeko ikastaroa emateko.

Esp.-zk./Gaia: SEG/03410.nsa

AURREKARIAK

Bat.– 1995eko otsailaren 2ko ebazpen bidez (1995-04-03ko EHAA) garai hartako Industria Administrazio eta Segurtasuneko zuzendariaren ebazpen bidez, alegia, «Asociación A.I. Empresarial de Instaladores de Fontanería, Saneamiento, Gas, calefacción, Mantenimiento, Climatación y Afines de Álava» (Afogasca) erakundeari baimena eman zitzaion Eraikinetako Instalazio Termikoetako espezialitatean, kategoria guztietan, profesional baimenduak prestatzeko aitortutako erakunde gisa jarduteko. Erakunde horren Erregistroko identifikazio-zenbakia honako hau da: REFPA, A-0008.

Bi.– Kontsumo eta Industria Segurtasuneko zuzendariaren 2007ko abenduaren 5eko ebazpenaren bitartez, Afogascaren baimena berritu zen profesional baimenduak prestatzeko aitortutako erakunde gisa.

Hiru.– 2010eko martxoaren 10ean, Afogascaren ordezkaritzak prestakuntza-ikastaroa emateko eskabidea aurkeztu zuen; ikastaro hori IC-1 txartel profesionalaren titularrentzat da, Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduan araututako eta 1027/2007 Errege Dekretuan onartutako eraikinetako instalazio termikoen txartel profesionala baliozkotzeko. Aipatutako ikastaroa honela banatuta dago: 120 ordu teoriarako eta 40 ordu praktiketarako.

Lau.– 2010eko martxoaren 12an, Arabako Lurralde Ordezkaritzako teknikariek, Afogascak aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, ikastaroko gaiari eta proposatutako irakastorduei buruzko aldeko txostena eman zuten.

Espediente horri ebazpena emateko, honako hauek kontuan hartu eta horiei buruzko aipamena egin beharko da:

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

2685

RESOLUCIÓN de 22 de marzo de 2010, de la Directora de Administración y Seguridad Industrial por la que se autoriza a Afogasca, Entidad Reconocida para la Formación de Profesionales Autorizados, para impartir un curso de convalidación del carné profesional de instalaciones térmicas de edificios, regulado en el Real Decreto 1027/2007.

N.º Exp./Asunto: SEG/03410.nsa

ANTECEDENTES DE HECHO

Uno.– Por Resolución de 2 de febrero de 1995 (BOPV de 03-04-1995) de la entonces Directora de Administración y Seguridad Industrial, se autorizó a la «Asociación A.I. Empresarial de Instaladores de Fontanería, Saneamiento, Gas, Calefacción, Mantenimiento, Climatización y afines de Álava» (Afogasca) como entidad reconocida para la formación de profesionales autorizados en la especialidad de Instalaciones Térmicas de Edificios en todas sus categorías. Siendo su número de identificación en el Registro: REFPA n.º A-0008.

Dos.– Por Resolución de 5 de diciembre de 2007 del Director de Consumo y Seguridad Industrial se renovó la autorización de Afogasca como Entidad Reconocida para la Formación de Profesionales Autorizados.

Tres.– Con fecha 10 de marzo de 2010 la representación de Afogasca presentó solicitud para impartir un curso de formación, dirigido a los titulares del carné profesional IC-1, para la convalidación del carné profesional de instalaciones térmicas de edificios, regulado en Reglamento de Instalaciones Térmicas en Edificios, aprobado por el Real Decreto 1027/2007. El mencionado curso se distribuye en 120 horas de teoría y 40 horas de prácticas.

Cuatro.– Con fecha 12 de marzo de 2010, los Técnicos de la Delegación Territorial de Álava, una vez analizada la documentación presentada por Afogasca, emitieron informe favorable respecto al temario y las horas lectivas propuestas para el curso.

En la resolución del expediente es necesario tener en cuenta y hacer referencia a los siguientes,

OINARRI JURIDIKOAK

Bat.– Industria Administrazio eta Segurtasuneko zuzendariari dagokio Ebazpen hau ematea, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren Egitura Organikoa eta Funtzionala ezartzen duen irailaren 22ko 514/2009 Dekretuaren 14. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Bi.– Alde batetik, industria-segurtasunaren alorrean kualifikazio indibidualeko txartelak eta enpresa baimenduak arautzen dituen martxoaren 14ko 63/2006 Dekretua garatzen duen Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2006ko apirilaren 10eko Aginduaren 6.2 artikuluaren, eta bestetik, aurretiazko prestakuntza partziala egiaztatzen bada, aipatutako Aginduaren hainbat eranskin aldatzen dituen Kontsumo eta Industria Segurtasuneko zuzendariaren eta Energia eta Meategien zuzendariaren 2007ko urriaren 11ko Ebazpenaren xedapen iragankorraren arabera, baimena eman ahal izango da, salbuespen gisa, aurreikusitako edukia baino maila txikiagoko edukia duen ikastaroa emateko, prestakuntza profesionaleko txartel jakin bat, kasu honetan, eraikinetako instalazio termikoen txartel profesionala lortu izana baliozkotzeko.

Hiru.– Arestian aipatutako 63/2006 Dekretua eta 2006ko apirilaren 10eko Agindua aplikatzeko barnejarraibideak ematen dituen Kontsumo eta Industria Segurtasuneko zuzendariaren eta Energia eta Meategien zuzendariaren 2007ko martxoaren 9ko ebazpenaren 35. artikuluaren arabera, aurreikusitako edukia baino maila txikiagoko edukia duten ikastaroak, aurretiazko prestakuntza partziala egiaztatzen dutenentzat direnak, baimentzeko Prestakuntza emango duen Erakunde Aitortuak dagokion Zuzendaritzan eskatu beharko du baimen hori; horretarako, ikastaro horren ezaugarrien deskribapena aurkeztu beharko du.

Lau.– Eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioaren arabera, egiaztatuta dago aipatutako enpresak betetzen dituela industria-segurtasunaren alorrean kalifikazio indibidualeko txartelak eta enpresa baimenduak arautzen dituen martxoaren 14ko 63/2006 Dekretuaren 22. artikuluan ikastaroak emateko gutxieneko gisa eskatzen diren baldintzak, enpresa horien instalazioak Arabako Lurralde Historikoan baitaude.

Adierazi diren lege-xedapenak eta oro har aplikagarriak izan eta horiekin bat datozen gainerako arauak aztertuta, honako hau

EBATZI DUT:

Afogasca prestakuntza-erakunde baimenduari baimena ematea Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduan araututako eta 1027/2007 Errege Dekretuak onartutako IC-1 txartel profesionalaren titularrentzat izango den prestakuntza-ikastaroa emateko,

FUNDAMENTOS JURÍDICOS

Uno.– La Directora de Administración y Seguridad Industrial es el órgano competente para la adopción de la presente Resolución de conformidad con lo establecido en el artículo 14 del Decreto 514/2009, de 22 de septiembre, por el que se establece la Estructura Orgánica y Funcional del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo.

Dos.– Conforme al artículo 6.2 de la Orden de 10 de abril de 2006, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, que desarrolla el Decreto 63/2006, de 14 de marzo, por el que se regulan los carnés de cualificación individual y las empresas autorizadas en materia de Seguridad Industrial, y a la Disposición Transitoria de la Resolución de 11 de octubre de 2007, del Director de Consumo y Seguridad Industrial y del de Energía y Minas, por la que se modifican algunos anexos de la citada Orden, en caso de acreditarse una formación previa parcial, se podrá autorizar excepcionalmente un curso de contenido inferior al previsto a fin de convalidar la obtención de un determinado carné de cualificación profesional, en este caso, el carné profesional de instalaciones térmicas de edificios.

Tres.– Conforme al artículo 35 de la Resolución de 9 de marzo de 2007, del Director de Consumo y Seguridad Industrial y del de Energía y Minas, por la que se dictan instrucciones internas para la aplicación de los mencionados Decreto 63/2006 y Orden de 10 de abril de 2006, para los supuestos de autorización de cursos de contenido inferior al previsto, dirigidos a quienes acrediten una formación previa parcial, la Entidad Reconocidas para la Formación deberá solicitar dicha autorización a la Dirección correspondiente, acompañando descripción de las características del mismo.

Cuatro.– Conforme a la documentación presentada por la solicitante, queda acreditado que la empresa mencionada reune los requisitos que, con el carácter de mínimos, se exigen para la impartición de los cursos en el artículo 22 del Decreto 63/2006 de 14 de marzo, que regula los carnés de cualificación individual y las empresas autorizadas en materia de seguridad industrial, estando ubicadas sus instalaciones en el Territorio Histórico de Álava.

Vistos los preceptos legales citados y otros de general y concordante aplicación,

RESUELVO:

Autorizar a la entidad de formación autorizada Afogasca, para la impartición de un curso de formación dirigido a los titulares del carné profesional IC-1, a efectos de conseguir la convalidación del carné profesional de instalaciones térmicas de edificios, re-

eraikinetako instalazio termikoen txartel profesionala baliozkotzeko. Aipatutako ikastaroa honela banatuta dago: 120 ordu teoriarako eta 40 ordu praktiketarako, eta erakundeak Araban dituen instalazioetan emango da.

Ebazpen honen aurka Gora jotzeko Errekurtsoa jar dakioke Industria eta Energiako sailburuordeari jakinarazten denetik hilabeteko epearen barruan. Hori guztia, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 107. artikuluan eta hurrengoetan azaltzen denari jarraiki.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko martxoaren 22a.

Industria Administrazio eta Segurtasuneko zuzendaria,
YOLANDA LÓPEZ FERNÁNDEZ.

gulado el mismo en el Reglamento de Instalaciones Térmicas en Edificios, aprobado por el Real Decreto 1027/2007. El mencionado curso se distribuye en 120 horas de teoría y 40 horas de prácticas y tendrá lugar en las instalaciones de la entidad situadas en Álava.

Contra la presente Resolución se podrá interponer recurso de alzada ante el Viceconsejero de Industria y Energía en el plazo de un mes contado desde su notificación, en virtud de lo establecido en los artículos 107 y siguientes de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En Vitoria-Gasteiz, a 22 de marzo de 2010.

La Directora de Administración y Seguridad Industrial,
YOLANDA LÓPEZ FERNÁNDEZ.